



## **Hutsen zuzenketa, honako deialdi honena: 2024 deialdia, ikerketa-talde/proiektu baten baliabideekin finantzatutako UPV/EHU prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzeko dena.**

UPV/EHU prestatzen ari diren ikertzaileak, ikerketa-talde/-proiektu baten baliabide propioekin finantzatutakoak, kontratatzeko 2024ko deialdiaren 4.1.a) eta 7.1) oinarrietan (deialdi hori Ikerketaren webgunean argitaratu zen 2024ko urriaren 11n) akatsa atzeman da, eta honako zuzenketa hau egin behar da:

### **4.1.a oinarrian, honako hau dioenean:**

Eskatutako laguntzarako 1. eranskinean zerrendatutakoekin bat datorren UPV/EHUko doktorego-programan matrikulatuta edo aurrez inskribatuta egotea.

### **Hau esan behar du:**

Ziurtagiri akademiko pertsonala izatea, lortutako kalifikazio guztiak eta horien data jasotzen dituen. Ziurtagirian adierazi behar da egindako irakasgai eta kreditu guztiak lizentziatura osoa edo horren baliokidea direla, eta eskatzaileak hirugarren zikloko ikasketak egiteko ahalmena duela.

### **7.1. oinarrian, honako hau dioenean:**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskabideen hautagarritasuna aztertuko da, eta 4. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuko da.

VRIk bere webgunean argitaratuko du onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko ebazpena. Eskatzaileek 5 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidea zuzentzeko edo eskatzen zaizkien dokumentuak aurkezteko. Zuzenketa hori deialdi honetako 6. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberetatik egin behar da.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

Adierazitako epea igaro eta aurkeztutako dokumentazio berria aztertu ondoren, VRIk onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, ebaluaziora igarotzen direnak adieraziz.

### **Hau esan behar du:**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskabideen hautagarritasuna aztertuko da, eta 4. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuko da.

VRIk bere webgunean argitaratuko du onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda. Eskatzaileek 10 egun balioduneko epea izango dute, aipatutako zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidea zuzentzeko edo eskatzen zaizkien dokumentuak aurkezteko. Halaber, doktorego-programan matrikulatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, programa horretan aurrez inskribatuta daudela. Doktorego eskolatik ezohiko epea irekiko dute aurreinskripzioa egiteko, hala behar dutenentzat. Zuzenketa hori deialdi honetako 6. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberetatik egin beharko da.

Adierazitako epea igaro eta aurkeztutako dokumentazio berria aztertu ondoren, VRIk onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, ebaluaziora igarotzen direnak adieraziz.

Leioan, 2024ko urriaren 29an.

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza